

IKASGAIAREN IRAKASKUNTZA-GIDA

Titulua: ERIZAINZAKO GRADUA	Mota: Oinarrizko Zientziak
Ikasgaia: Giza Gorputzaren Egitura eta Funtzioa III	Eskolen kronograma: 2. Lauhilekoa
Kodea: 26438	Hizkuntza: Euskara/Gaztelania
Irakasgaiaren Azalpena eta Testuingurua zehaztea: Irakasgai honetan ikasleek gizakiaren gorputzaren integrazio- eta kontrol-sistemaren, erregulazio- eta mantentze-sistemaren eta ugaltze-sistemaren egiturari eta funtzioari buruzko ezagutza jasotzen dute. Ezagutza hori ezinbestekoa da beste oinarrizko irakasgai batzuei lotuta dagoelako, hala nola, Patologiari, Farmakologiari eta izaera klinikoagoa duten Erizaintzako beste zientzia batzuei.	ECTS kredituak: 6
Sartzeko eskakizunak/gomendioak Nerbio-sistemaren anatomiari eta fisiologiari, zentzumen-organoei, organo endokrinoei, digestio-, gernu- eta ugaltze-organoei buruzko oinarrizko ezagutzak.	Kurtsoa: 1 Maila

IRAKASLEAK	Tel.	Helbide elektronikoa
Irakasgaiaren arduraduna Juana Argomaniz Alútiz	945 218064	juani_argomaniz@ehu.eus juani_argomaniz@ehu.eus
Euskarazko lerroko irakasleak Koldo Churruca Ortega Maddalen Corcuera Camino Zuriñe Pardo Ortiz de Guzmán		KOLDO.CHURRUCAORTEGA@osakidetza.eus MADDALEN.CORCUERACAMINO@osakidetza.eus maddalen_corcuera001@ehu.eus ZURINE.PARDOORTIZDEGUZMAN@osakidetza.eus

GAITASUN ESPEZIFIKOAK

- G1. Giza gorputzaren aparatu eta sistemen prozesu fisiologikoak identifikatzea eta haien funtzionamendua azaltzea.
- G2. Giza gorputzaren prozesu fisiologikoen arteko erlazioak ezartzea.

IKASKUNTZAREN EMAITZAK

- IE1. Idatziz deskribatzen ditu hiru gai-unitateetan azaldutako gizakiaren gorputza osatzen duten organoen eta sistemen arteko erlazio fisiologikoak.
- IE2. Unitate tematikoetan azaldutako organo eta sistemen arteko erlazio fisiologikoak identifikatzen ditu.
- IE3. Unitate tematikoetan azaldutako sistemen morfologiari eta topografiari buruzko eskema anatomikoak egin eta/edo ezagutzen ditu.

EDUKIAK

I. UNITATEA: FISILOGIA OROKORRA

- 1.1. Nerbio sistema Kutsapena

II. UNITATEA: SISTEMEN FISILOGIA

2.1. Integrazio eta Kontrol Sistema

- 2.1.1 Nerbio-sistema, eta zentzumen-organok

*Mintegia (2 ordu): **Nerbio-sistema***

- 2.1.2 Endodrino-Sistema

2.2. Erregulazio- eta mantentze-sistema

- 2.2.1 Digestio-sistema

*Mintegia (2 ordu): **Digestio-sistema***

- 2.2.2 Gernu-sistema

*Mintegia (2 ordu): **Gernu-sistema***

2.3. Ugaltze- eta hazkunde-sistema

GAI UNITATEA	IRAKASLEAK	KLASE MAGISTRALEN ORDUAK	MINTEGI-ORDUAK
1	Koldo Churruca Ortega	2	0
2.1	Koldo Churruca Ortega Nerbio-sistema Zentzumen organoak	18	2
	Zuriñe Pardo Ortiz de Guzmán Endokrinoa sistemak	6	0
2.2	Zuriñe Pardo Ortiz de Guzmán Digestio sistemak	13	2
	Koldo Churruca Ortega Gernu sistemak	10	2
2.3	Maddalen Corcuera Camino Ugaltze-sistemak	5	0
GUZTIRA		54	6

METODOLOGIA

Aurkeztutako gaitasunak garatzeko helburuarekin, honela jasoko da ezagutza:

- **Klase Magistralak**, ikus-entzunezko material didaktikoekin batera, edukien ulermena sustatzeko. Azalpenak galdeketaren metodoarekin osatuko dira ikasgelan, parte-hartze aktiboa sustatzeko eta irakasle eta ikaslearen artean elkarrizketarako aukera emateko.
- **Mintegiak**: nahitaezko jarduera hau talde txikietan antolatuko da, ikasleak bakarka zein taldeka gai-unitate bakoitzean aplikagarriak diren ekintzak egin ahal izateko.

LAN PRESENTZIALA (60 ORDUAK)	
Klase magistralak	Mintegiak
54	6

LAN EZ-PRESENTZIALA (90 ORDUAK)	
Gidatutako lana	Bakarkako lana
45	45

GUZTIRA	
ECTS	6
ORDUAK	150

EBALUAZIO-SISTEMA

OHIKO DEIALDIA: EBALUAZIO JARRAITUKO SISTEMA

Irakasgaiaren ebaluazio-sistema ebaluazio jarraitua da. Gaitasunen eta ikasitakoaren emaitzen lorpena mintegietan parte-hartzearen eta azken proba idatziaren bidez baloratzen da.

Taula honetan laburbiltzen da gaitasunen, ikaskuntzaren emaitzen, jardueren eta ebaluazio-sistemaren arteko erlazioa:

GAITASUNAK	IKASKUNTZAREN EMAITZAK	JARDUERA	EBALUAZIOA	AZKEN KALIFIKAZIOAREN %
G1, G2	IE1, IE2, IE3	Klase magistralak/ Ikasgelako praktikak	-Idatzizko azterketa: galdera laburrak / testa	%70
G2	IE3	Jarduera kooperatiboak, mintegiak	-Eskema anatomikoak - Testa	%30

Idatzizko proba galdera laburrekin, marrazki anatomikoekin edo testekin. Testeko erantzun oker bakoitzak galderaren balioaren % 25 deskontatuko du. Idatzizko proba azterketa bakarrean egingo da eta 2 egunetan egin beharko da, azterketa-asteen barruan. Lehenengo egunean, neurologia-sistema zentzumen organoekin batera, eta endokrino-sistema edukiak ebaluatuko dira. Bigarren egunean digestio-sistema, gernu-sistema eta ugaltze-sistema edukiak ebaluatuko dira. Azterketaren kalifikazioa bi ariketetan lortutako batura izango da eta kalifikazioa bigarren azterketa egin eta hurrengo 12 egun naturaleko epean argitaratuko da.

Ikasleak irakasgaia osatzen duten sistema guztiei buruzko ezagutza erakutsi behar du, eta beraz, azterketa gainditzeko honako baldintzak bete beharko ditu:

- Erantzun guztien baturatik lortutako kalifikazio orokorrak 10etik 5 edo handiagoa izan behar du.
- Batura egin ahal izateko, sistemetako bakoitzak (nerbio-sistema eta baita zentzumen-organoak ere, sistema endokrinoa, digestio-, gernu- eta ugaltze-sistemak) 10etik 4 edo kalifikazio handiagoa izan behar du. Gutxienekoen baldintza da hori.
- Ezinbestekoa da gai-unitate guztiei buruzko gutxieneko ezagutza erakustea, beraz, beharrezkoa da galdera labur guztiei koherentziarekin erantzutea.

Gutxienekoen bat gainditzen ez bada, irakasgaia eten egingo da, eta hurrengo deialdian berriz aurkeztuko da irakasgai osora.

Mintegietara ez joatea justifikatuta badago ariketa osagarri baten bidez berreskuratu ahal izango dira.

Mintegietara ez joateak, justifikatu gabe, mintegiaren balioa kenduko du azken kalifikazioan

EBALUAZIO JARRAITUARI UKO EGITEA

Ebaluazio jarraituko sisteman parte hartu duten eta azken ebaluazioko sistemaren bidez ebaluatuak izan nahi duten ikasleek idatziz adierazi beharko diote ikasgaiaren irakasle arduradunari ebaluazio jarraituari uko egiten diotela. Horretarako, 9 asteko epea izango dute ikasgaiaren hasieratik zenbatzen hasita, zentroko egutegi akademikoaren arabera, 2017ko martxoaren 13ko EHAA n argitaratutako ebaluazio-sistemaren 8. artikuluan jasotakoari jarraikiz.

Azken azterketa idatzira edo probetara ez aurkezteak «Ez aurkeztua» kalifikazioa ekarriko du ikasgaiari.

OHIKO DEIALDIA: AZKEN EBALUAZIOKO SISTEMA

Azken ebaluazioa ebaluazio jarraituaren salbuespena da ebaluazio jarraitua egin ezin duten ikasleentzat: Justifikatutako arrazoiak direla-eta ebaluazio jarraituko sisteman parte hartu ezin duten ikasleek amaierako proba bakarra eskatu ahaliko dute, zeinak ikasgaiaren notaren %100 balioko duen. Hauek dira justifikatutako arrazoi horiek dira: lan-arrazoiak, genero indarkeriaren biktimak, erditzea, adopzioa, harrera edo 3urtetik beherako seme-alabak norbere ardurapean izatea, mendekotasuna duen senidea zaintzea, ikasleak %33ko ezintasuna edo handiagoa izatea, goi-mailako kirolaria izatea, bidaiatzea edo dedikazio handia eskatzen duten jarduera artistikoetan/kulturaletan aritzea, beste goi-mailako ikasketa batzuekin bateratzea, kargu politikoekin bateratzea, jarduera sindikalak izatea, ikasleen ordezkarietan aritzea, GKEak edo beste batzuk.

Taula honetan laburbiltzen da gaitasunen, ikaskuntzaren emaitzen, jardueren eta ebaluazio-sistemaren arteko erlazioa:

GAITASUNAK	IKASKUNTZAREN EMAITZAK	JARDUERA	EBALUAZIOA	GLOBALA KALIFIKAZIOAREN %
G1, G2	IE1, IE2, IE3	Klase magistralak/ Ikasgelako praktikak Jarduera kooperatiboak, mintegiak	- Idatzizko azterketa: galdera laburrak / testa	%100

Azken azterketara edo probetara ez aurkezteak «Ez aurkeztua» kalifikazioa ekarriko du ikasgaiari.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKOA

Ohiko deialdian irakasgaia gainditzen ez duten ikasleek, aukeratutako ebaluazio-sistema edozein dela ere, ezohiko deialdiaren amaierako ebaluazio-probara aurkezteko eskubidea izango dute.

Idatzizko proba galdera laburrekin, marrazki anatomikoekin edo testekin. Testeko erantzun oker bakoitzak galderaren balioaren % 25 deskontatuko du. Idatzizko proba azterketa bakarrean egingo da eta 2 egunetan egin beharko da, azterketa-asteen barruan. Lehenengo egunean, neurologia-sistema zentzumen organoekin batera, eta endokrino-sistema edukiak ebaluatuko dira. Bigarren egunean digestio-sistema, gernu-sistema eta ugaltze-sistema edukiak ebaluatuko dira. Azterketaren kalifikazioa bi ariketetan lortutako batura izango da eta kalifikazioa

bigarren azterketa egin eta hurrengo 12 egun naturaleko epean argitaratuko da. Ezohiko deialdiaren azterketa gainditzeko baldintzak ohiko deialdiaren berdinak dira.

Ohiko deialdian lortutako mintegietan parte hartzeari dagozkion kalifikazioak, balioaren %50eko nota edo handiagoa dutenak, ezohiko deialdirako gordeko dira.

Ezohiko deialdiaren azken azterketara edo probetara ez aurkezteak «*Ez aurkeztua*» kalifikazioa ekarriko du ikasgaiari.

INFORMAZIO-ITURRIAK

Oinarrizko bibliografia

- * Patton K. y Thibodeau G. Anatomía y Fisiología. 8ª ed. Barcelona Elsevier. 2013
- * Drake RL, Vogl aw, Mitchell amw. Gray. Anatomía para estudiantes. Elsevier; 2020. (*Acceso a ebook UPV*)
- * Tortora GI, Derrickson B. Principios de Anatomía y Fisiología. 15ª ed. Barcelona: Editorial Médica Panamericana; 2018.
- * Hansen, Jon T. Cuaderno de anatomía para colorear. 2ª ed. Barcelona. Elsevier 2015

Sakontzeko bibliografia

- * Sobotta. Atlas de Anatomía Humana 24ª Edición. Panamericana; 2019. (*Acceso a ebook UPV*)

Recursos electrónicos:

- * Alsup K, Fox G. Resources (university of michigan medical school) Acceso en:
<https://sites.google.com/a/umich.edu/bluelink/resources>

OHARRAK

2025/2026 ikasturtearen bigarren lauhilekoaren hasieran, ikasleen eskura jarriko da eGelan irakasgaiarekin lotutako hainbat dokumentazio: Kronograma, tutoretzak eskatzeko sistema eta mintegiak egiteko taldeen konfigurazioa.

TUTORETZAK

Irakasgaiaren irakasleekin eskatu beharreko tutoretzak posta elektronikoki bidez bideratu behar dira ikasgaiaren irakasle arduradunaren bitartez: juani_argomaniz@ehu.eus eta 3-4 ikaslez osatutako taldeentzat eskatuko dira, gehienbat. Tutoretzak ez dira aurrez aurreko eskolen ordezkariak.